

# Ezpalak

JON TORNER

## Euskal literatura irakaskuntzan

“EGUNGO euskal literaturaren irakaskuntzak ez du curriculum-legearen helburu bat bera ere lortzen”. Ondorio horretara heldu da Idurre Alonso (Eibar, 1978) Mondragon Unibertsitateko irakaslea, Batxilergoko euskal literaturaren irakaskuntzari buruzko tesiaren egilea. Euskal Herriko Unibertsitateko Patxi Juaristi eta Jon Batti Kortazar irakasleen zuzendaritzapean egin du tesia Alonsok.



EHUK plazaratutako prentsa oharrak dioenez, “literaturaren historia zentro batzuetan bakarrik irakasten da, eta narratibaren alorreko idazleak bakarrik”. Bestalde, irakurtzea proposatutako lanen % 96 narratibakoak dira, “nahiz eta horiek irakurtzearen helburua ez den ez komunikazio-gaitasunak garatzea, ez irakurketarako zaletasuna sustatzea –irakurketaren segimendu bakarra lana irakurri dela frogatzeko kontrol bat besterik ez egitea da horren erakusgarri–”. Azkenik, klasean egiten diren ariketa gehienek “eduki kontzeptualak finkatzea” dute helburu bakarra.

**Xabier de Felipe Prieto** biolin jotzaileak irabazi du Nicanor Zabaleta beka. Bizkaitarrak bi urte –karrera amaitu arte– emango ditu Frankfurteko (Alemania) kontserbatorioan, Walter Frotchert irakaslearen zuzendaritzapean. 17.000 euroko laguntza jaso du Xabier de Felipek.

**Montxo Armendarizen** *Tasio* film ezagunak 25 urte bete dituela eta, Nafarroako Ikus-entzunezkoen eta Zinemaren Institutuak (INAAC) hainbat ekitaldi antolatu ditu, gehienak irailean: filmari buruzko erakusketa; aktore, zuzendari eta teknikariei omenaldia... Ekitaldi gehienak Lizarran egingo dituzte.

**Jose Maria Hualderen** *Jauregia* bildumako 29 obra daude ikusgai Gasteizko Artium museoan. Hego Amerikako hamazazpi artistaren koadro, argazki eta eskultura horiek museoaren eskaintza “nazioartekoagoa” bilakatzeko hartu dituzte maileguan, Daniel Castillejo Artiumeko zuzendariaren hitzetan. Anthony Goikolea, Ray Smith, Jose Bedia, Fabián Marcaccio, Guillermo Kuitca eta Liliana Porter moduko artisten lanak bildu ditu erakusketak.

### • Liburu elektronikoei buruzko iritziak bildu ditu *Administrazioan Euskaraz* aldizkariak azken zenbakian. Hona horietako batzuen pasarteak:

**Mikel Arrizabalaga (Elkar taldeko komunikazio-burua):** «Gure ustez, ohiko paperezko liburu eta liburu elektronikoen artean elkarbizitza bat emango da, ondorioz egungo liburu dendek egokitzapen prozesu bat izan beharko dute, berezkoa duten kultur topaleku funtzioan eta kultur edukien eskaintzan sakondu beharko baitute».

**Ignacio Latasa (Leer-e.es enpresako zuzendaria):** «Ez dugu uste liburu elektronikoen irakurketa tradizionala erabat alboratuko dutenik, baina argitaletxeek argi dute liburu elektronikoa euren negozioaren parte handia izango dela datozen urteetan eta denak ari dira aldaketara nola moldatu ikeretzen. Gainera, Carmen Balcells bezalako idazle agente garrantzitsu batek *Palabras Mayores* egitasmoarekin liburu elektronikoen alde apustu sendoa egiteak, argitaletxeek gaia oso kontuan hartzea ekarri du».



**Xabier Amuriza (Interneten plazaratu du *Orain ezin natz bil* lana):** «Oraindik zail egiten zaigu liburuaganako fideltasun edo ‘maitasun zaharra’ haustea, baina hori denbora kontua da. Liburu elektronikoen ahalbideak neurrigabeak dira formatu tradizionalaren aldean. Teknika egokitu eta eroso eskuratzea besterik ez da falta. Denbora laburreko kontua».

**111 Akademia irakurle elkarteak:** «Liburu elektronikoen arrakasta edo porrota, euskal irakurleen erabileraren araberako izango da. Eta erabilerari hori euskal irakurleek teknologia berrien aurrean duten jarreraren baitan egon daiteke, neurri batean. Garbi dago munduko beste kulturak horretara badoaz, euskaldunak ere bide hori jarraitu beharko duela, gainontzekoengandik isolatuta geratu nahi ez badu behintzat. Bide horretan aurrera egitea txarra denik behintzat ez genuke esango».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE


## Kronika historikoak, bertsolariek lehen pertsonan idatzi eta botatakoak

HAINBAT EMANALDI egin zituzten Xabier Amurizak eta Jon Maiak "Mende baten aldarrak XX.ean jarriak" bildumarekin. Orain, liburu eta DVDa eskuan, nahi beste bider gozatu ditzakegu bertsook, etxean.

31 bertso sorta aurkituko ditugu bertan, bakoitza bere sorreraren azalpen edo istorioarekin. Kronika batez ere politiko eta sozial hauen bidez bidaiatuko dugu iragan mendera. Agertuko zaizkigu 36ko gerra, Franco, errepublika, II. Mundu Gerra, Afrikako gerra, Amerikara herbestea, gosetea, Foruen galera, Txiki eta Otaegi, Joxe Arregi, Espainiako etorkinak, Sigma josteko makina...

Gaur egun askoz bertso *lightago*-engatik azalpenak eman beharrean aurkitu denik bada. Ahobizarrak gabe idatzi edo botatakoak dira.

Batzuk oso minberak eta besteak umore gaizto-koak, baina denak oso gordinak. Jon Maiak azaltzen du hitzurrean bertso hautaketa honen balio erantsia: "Kronistak, bertsolariak, alegia, kasurik gehienetan, kantatzen ari diren horren lekuko edo protagonistak izan dira. Goseari kantatu diot gosea pairatu du. Emigratioari bertsoak jarri dizkiona emigrantea izan da. Eta horrelaxe gehienak". Aukeraketa honetarako galbahe estuena maila da: bertso ederrak direla guztiak. Ez dago, beraz, baztertze azalik, baina faltan



Liburua eta DVDa. Egileak: Xabier Amuriza eta Jon Maia. Prezioa: 20 euro.

nabaritu ditut beste ale batzuk, tituluak XX. mende osoaren espektatibari jarri bainau bideoa ikusi aurretik, eta 80ko hamarkadako da sortarik berriena. XX. mende bukarako gizarteak eta politikak sortutako bertsoen egarriz geratu naiz.

Egilez ere oso aberatsa da hautaketa: Basarri, Txirrita, Kepa Enbeitza, Iturzaeta, Azpillaga, Joxe Agirre, Etxahun Iruriko, Paulo Yanzi, Iñaki Alkain, Amezketa artzaina, Otaño, J. B. Otxalde, Joxe Manuel Etxeita, Anjel Markano, P. Zabaleta, Arrese-Beitia, Xalbador, Lopategi, Lazkao Txiki, Elizanburu eta bi anonimo.

Sorta batzuk oso ezagunak egingo zaizkizu, asko buruz jakingo dituzu, beste asko kantu liburuxketatik mila bider kantatuko zenituen, edo Joseba Tapiaren *Agur*

*Intxorta maite* CDan entzungo zenituen. Baina deskubrituko duzu pasadizo eta bertso ederrak, esaterako, 36ko gerran, gau ilunaren ezkutuan, fronte banatan dauden bi bertsolarik egindako saioa.

Bideoak gogora ekarriko dizu zure herrian bizi izan zenuen emanaldi hura. Maia eta Amurizaren azalpenak zorrotz eta laburrak dira, eta gainerako dena da bertsoa. Baina zuzeneko emanaldi hark izan zuen indarra, momentu haren magikotasuna ekarri ezin dizulako madarikatuko duzu telebista. ■

### iametza interaktiboak programatzailea behar du

#### Eskatzen dena:

- Informatikan ingeniariaritz ikasketak
- PHP eta MySQL menperatzea
- HTML, CSS eta JavaScript erabiltzen jakitea
- Software libreko tresnekin garapenak eginak izatea (Wordpress...)
- Flash programazioa (Action Script) jakitea
- Euskaraz jakitea

#### Kontuan hartuko dena:

- PHP Framework-ekin esperientzia
- Linux-en ezagutza
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Esperientzia antzeko lanetan

Lanpostuan interesa izanez gero, bidali curriculum, [curriculum@iametza.com](mailto:curriculum@iametza.com) helbidera, abuztuaren 20a baino lehen, "Programatzailea" erreferentzia adieraziz.

#### Eskaintzen dena:

- Lan talde gazte batean integratzea
- Interneteko proiektuen garapenean parte hartzea
- Etengabeko formazioa
- Egun osoko lanaldia

iametza  
interaktiboa